

XXXV. ARGAZKI LEHIAKETA

Karrantzako Udaleko Kultur Etxeak “Karrantza Harana” argazki lehiaketaren XXXV. edizioa antolatu du 2018rako.



OINARRIAK

HELBURUA.- Lehiaketaren helburua da argazkiak biltzea Udal Liburutegiko Tokiko Arloko argazki artxiborako.

GAIA.- ZERUA Karrantzatik ikusita

LANAK.- Egile bakoitzak hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu, gehienez ere. Obrek originalak eta argitaratu gabeak izan behar dute. Argazkiak ez dira beste lehiaketa batzuetan saritutakoak izango. Lehiatzaileen erantzunkizuna da aurkeztutako lanen gainean eskubide duen hirugarrenik ez egotea.

NEURRIAK.- Argazki bakoitza, gutxienez 15 x 20cm-koa izango da, eta 21 x 28 cm-ko kartoi mehe batean itsatsita aurkeztu behar dira.

LANAK AURKEZTEKO EPEA.- Lanak aurkezteko epea irailaren 25ean amaituko da. Lanak Kultur Etxean aurkeztu edo korreoz igorri beharko dira (Kultur Etxea - Concha 46 - 48891 Karrantza - Bizkaia). Antolatzaileek ez dute euren gain erantzukizunik hartuko, lanak bidaltzean horiek galdu edo hondatzen badira.

LANAK NOLA AURKEZTU.- Argazki bakoitzaren atzealdean nahitaez jarri beharko da egilea identifikatzeko hautatutako lema eta argazkiaren titulua. Gutun-azal batean aurkeztuko dira, eta barruan, orri batean, egilearen datuak eta telefono zenbakia adieraziko dira.

EPAIA: Epaimahaia izendatuko da, eta bere epaia aldaezina izango da. Epaimahaiak erabakia hartzerakoan aintzat hartuko ditu argazkiak deialdiaren gairako egokiak ote diren, bai eta argazkien eta beren konposizioaren sormen lana eta originaltasuna ere.

SARI BANAKETA: Urriaren 6an izango da.

- SARIAK:-**
1. saria 150€ eta diploma
 2. saria 100€ eta diploma
 3. saria 50€ eta diploma

“Partaide bakoitzak, gehienez ere, sari bat jasoko du”

Epaimahaiak sari guztiak eman gabe utz dezake lehiaketa, aurkeztutako lanek behar adinako kalitaterik ez badute.

ERAKUSKETA.- Kultur etxeak jendaurreko erakusketa egin ahal izango du lehiaketara aurkezten diren argazkiekin.

SARITUTAKO ARGAZKIAK.- Saritutakoen .jpg artxiboa bidaliko da Kultur Etxera eta Karrantzako Udalak argazki horiek erabili eta kopiatzeko eskubidea izango du.

OHARRAK.- Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriak erabat onestea dakar. Antolatzaileek oinarri hauetan aurrez ez ikusitako arazo guztiak ebatziko dituzte.

